

Telegarraioa

Eneko Amezketa

- Zientzialari zorora:* *Lortu dut!!!!!!! Tramankulu honekin edozein lekura bidaiatzea posible izango da.....*
- Matxalen:* *Zer diozu?*
- ZZ:* *Lortu dudala, espazioan zehar tupustean mugitzeko asmakizuna. Hauxe da TELEGA-
RRAIOA!*
- Ixone:* *Matxalen, ez egin kasurik, badakizue erdi zoratuta dagoela...*
- ZZ:* *Zer diozu?*
- Kepa:* *Kontuz, Ixone, bestela zurekin haserretuko da eta asmakizuna frogatzera behartuko zaitu.*
- ZZ:* *Lasai egon, ez du Ixonek frogatuko... guztiok frogatuko dugu esperientzia miresgarri hau...
kar-kar-kar-kar!*
- Laia:* *Andereño, ni tripako minarekin nago, ezin izango dut bidaiarik egin.*
- ZZ:* *Lasai egon, Laia, asmakizun honek gure gorputza babesteko ezaugarriak ditu.*
- Ixone:* *Andereño, dakizunez, nire katua gaixorik dago eta ordua hartuta nuen albaitariarenean.*
- ZZ:* *Ixone, lehen esan dudan bezala, Telegarraioa tupusteko gauza da. Bat-batean hemen gaude,*

eta bat-batean edonon egon gaitzke. Garaiz iritsiko zara albaitariarenera.

Matxalen: Andereño...

ZZ: Zer!!!!!!!!!!

Matxalen: Ez, ezer ez...

ZZ: Ongi da.... Sar zaitetze kapsula honetan, bidaia hastera doa...

Fgansua: Oh, mon amour, que les plus beaux yeux que vous avez! (o mon amug, ke li pli bus yi ke gesasé!) (bihotza, zelako begi politak dituzun!)

ZZ: Eureka!!!! Lortu dut! Nahi nuen moduan, Parisen gaude.

Ameli: Fgansua, Ou sont ces gens? (u so sisó?) (nondik etorri dira hauek?)

Kepa: Zer diote? Nik ez dut frantsesa ulertzen.

ZZ: Jakin nahi du nondik gatozen.

Ixone: Utzi niri, Mademoiselle, nous viennent du Pays Basque (Madmuasel, nufien di Paí Bask) (Andereño, gu Euskal-heritik gatoz).

Fgansua: Euskal Hegia, nik badakit euskagaz mintzatzén.

Laia: Eskerrak, nik ere ez nuen Frantsesa ulertzen.

Ameli: Baina nondik demontge atega zagete?

ZZ: Nik asmatutako telegarraioari esker agertu gara hemen. Begira, makina honetan nora joan nahi duzun markatzen duzu... adibidez, KONGO, barruan sartu eta...

Fgansua: Oh la lá, desagegtu da!

Matxalen: Ez gaitu hemen utziko, ezta?

Ameli: Tgankil neskató, Fgantzian pgimegan egongo zagete.

Ixone: Baina, nik katua albaitariarenera eraman behar nuen...

Matxalen: A, baina hori ez zen asmakizuna ez probatzeko aitzakia?

Ixone: Jo, Matxalen, aitzakia zen, bai, baina egia ere bai.

Fgansua: Neskató, katugik gabe gelditu zagela uste dut.

Kepa: Ez, andereñoa gure bila itzuli behar da... bai, hemen dator.

ZZ: Mundiala da nire asmakizuna!!!!!!!!!!!! Afrika-tik nator, Kongotik, hain zuzen. Eta zoragarria da hango paisaia. Lehoiak, tigreak, jirafak eta errinozeroak ikusi ditut.

Lai: Errinozeroak, nire animaliarik gogotsuena! Nik ere halako bat ikusi nahi dut.

ZZ: Ba azkar, igo nire tramankulura eta goazen Kongora.

Ameli: Nik ege halako pagaisú bat ikusi nahiko nuke.

ZZ: Etorri zuek ere, nahi baduzue.

Fgansua: Ongi da. Goazen, Ameli, eta han bukatuko dut zuge magazkia.

Ameli: Lilugagagia!!!!!!!!

Lai: Eta non dago errinozeroa?

ZZ: Animaliek alde egin dute, zein arraroa!!!!

Matxalen: Bertoko jendea dago hortxe, galdetuko diet... Aizue!!!!!!!!

ZZ: Matxalen, isildu!!!!!! Hemengo gizartea kani bala da!!!!

Ixone: Oo, oo...

Mamadou: Abdoulaye, tumbuku tombo (Abdoulaye, atzeritarrek etorri dira).

Abdoulaye: Tumba jamba jan (gaur ez dugu bazkaldu, jan egingo ditugu).

Ixone: Ez dut tutik ere ulertzen, baina «tumba» esan du, eta «jaaan»!!!!

Fgansua: Oh la lá, bizigik itzuli nahi dut etxega.

Ameli: Lasai, ez gaituzte lagituta ikusi behag.

Mamadou: Yuta, mega tromba (oso gozo daudela ematen du).

Abdoulaye: Mamadou, kon tu guamba wamba? (Mamadou, gatza ekarri duzu?)

Mamadou: Ayu kuté (bai).

Abdoulaye: Turi mori bundi (botaiezu gatza).
Ameli: «Mogi bundi», hogi badakit zeg den, kjjjj, akabó.
Fgansua: Andereño, zeg egin behag dugu ogain?
ZZ: Zuek, ez dakit, baina gu bagoaz!!!!!!!
Fgansua: Aaaa, madagikatuá!!!!!!
Ameli: Fgansua, saiatuko gaga bege lagunak izaten.
Fgansua: Eta nola ulegtuko duzue elkag?
Ameli: Utzidazu nigi... Ni Ameli. Tu tombo we lagun?
Mamadou: Arikimakaté (lelokeriak).
Abdoulaye: En tu, en bi, en tu, en bi... (gatza bati eta besteari, bati eta besteari).

Fgansua: Beno, «jan» esaten ez duten bitagtean...
Mamadou: Jajajaja, jan, jan.
Ameli: Fgansua, zeggatik ez zaude isilik?
Kanibalak: Jan jan jan jan jan...
Fgansua eta Ameli: Aaaaaaaaa!!!
Alessandro: Oh sole miooooooooo...
Filipo: Alessandro, non cantare cosi in alto (Alessandro, ez abestu hain ozen).

Alessandro: E per ché, Filipó? (E perké, Filipó?) (Zergatik, Filipo?).

Filipo: Il capo non piace (Il capo non piache) (Nagusiak ez du gustuko).

Alessandro: Non mi interessa, voglio cantare (Ez zait inportata, jarraituko dut abesten).

Filipo: Il capo !!!! (Nagusia!!!!).
ZZ: Begira, Italian agertu gara, kanibal horietatik urrun.
Alessandro: Non il capo, chi sei? (Non il capo, ki sei?) (Ez da nagusia, nortzuk zarete?).

Matxalen: Kontuz, «il capo» esan dute! Agian mafiosoak izango dira, Al Capone bezala!

Filipo: Mafia?? Questo e una pizzeria (Kuesto e una pizzeria) (Pizzeria bat da hau).

Ixone: Mmmm, ba ni gose naiz... Ba al duzue pepperoni zati bat?

- Alessandro:* *Che pepperoni* (Ke peperoni)... *Stiamo lavorando. Di dove sei tu?* (Zer pepperoni eta zer pepero ni... lanean ari gara. Nongoak zarete?).
- Laia:* *Ni Laia naiz. Hauek Matxalen, Ixone eta Kepa dira, eta hau gure andereñoa. Euskaldunak gara.*
- Filipo:* *Euskalduno????, Paesi Baschi* (Paesi Baski)... *Sapere* (Ezagutzen dut)... *Argiñano, Arzak, Berasategi, Subijana...*
- Alessandro:* *Mmmmm, delizioso* (delizioso), *volete provare una pizza dal centro di Roma?* (Folete probaré una pizza dal chentro di Roma?) (Probatu nahi duzue Erroma erdialdeko pizza bat?).
- Ixone:* *Bai, mesedez, entzun nire tripa orroak* (grrrrrrrr).
- Chef:* *Alessandro!! Filippo!! Questo e che il rumore? Chi sono questi?* (Kuesto e ke il rumore? Ki sono cuesti?) (Zer da zarata hori? Nortzuk dira hauek?).
- Filipo:* *Amici che vogliono mangiare la pizza* (Amichi ke vogliono manjare la pizza) (Pizza probatu nahi duten lagunak).
- Chef:* *Da pagare per magiare!!!* (Da pagare per manjare!!!) (Jateagatik ordaindu behar da!!!).
- ZZ:* *Azkar, goazen! Ez dugu dirurik ekarri!*
- Chef:* *Dove sono?* (Nongoak dira?).
- Alessandro:* *Sono a Paesi Baschi* (Sono a Paesi Baski) (Euskal-herrikoak dira).
- Chef:* *Oh la la, itxaron, ni Subijanaren laguna naiz... Nola dabil traste hau?*
- Chef:* *Kaixo, lagunak, euskaldunak hemendik pasatu dira?*
- Mamadou:* *Mmmmm, unga txaka gabacho, ta unga txaka euskalduno* (gabatxoak bazkaldu ditugu, orain euskaldun bat bazkalduko dugu).

Chef: *Io non sono euskalduno, io sono italiano* (ni ez naiz euskalduna, ni italiarra naiz).

Abdoulaye: *Mmmmm, unga txaka pitzaliano* (pizza zaporedun italiarra bazkalduko dugu).

Chef: *Fuori di qui!* (Fuori di kui!) (Hemendik at!)

Kanibalak: *Jan, jan, jan, jan...*

Chef: *Aaaaaaaaaaaaaa!!*

Ixone: *Nora demontre agertu gara? Hotz izugarria egiten du hemen!*

ZZ: *Moskun gaude, Errusiako hiriburuan.*

Ixone: *Eta hemen ez dago inor?*

Matxalen: *Dagoen hotzarekin, etxean sartuta egongo dira denak.*

ZZ: *Begira, hantxe dago bikote bat. Kaixo, HE-MEN-GO-AK ZA-RE-TE?*

Sasha: *Bai hemen bizi garra, eta badakigu euskarra.*

Laia: *Bai zortea, gurea, Moskura etorri eta euskaldunekin topatu.*

Irina: *Gu ez garra euskaldunak, hemen jaio ginen, baina gurte aitite-amamak euskaldunak zirren eta hizkuntza errakutsi ziguten. Ni Irina naiz, eta nire laguna, Sasha.*

Ixone: *Urte askotarako. Eta nola jasaten duzue horrenbesteko hotza?*

Sasha: *Erraza: vodka edaten (hotzetik babesten gaitu).*

Irina: *Prrobatu, edan ezazue pixka bat eta barrnealdea berrotuko zaizue (glu-glu-glu).*

Matxalen: *Uffff, gogorra dago!!!!!!*

Sasha: *Eta zuek, nondik agerrtu zarrete?*

ZZ: *Edabe miresgarri bat asmatu dut, eta probatzen ari gara. Edatean, munduko toki desberdin batera agertzen gara.*

Irina: *Ez esan lelokerriarrik, horri ezinezkoa da.*

Matxalen: *Bai, egia da, orain Italiatik gatoz.*

Sasha: *Ezin dugu sinetsi, horri ikusi egin beharr dugu.*

Ixone: Bai, begira, zatozte. Kapsulan igotzen gara, munduko herri bat idatzi, eta «play» sakatu.

Irina: Eta horrekin hemendik desagerrtuko zarrete eta beste herri batean agerrtu?

Laia: Horixe, ba...

Sasha: Ba egia bada, joan aurretik vodkarrekin topa egin beharr dugu berrirro.

ZZ: Ongi da, baina oso gutxi bota, ados? Edatea ez da batere ona...

Sasha eta Irina: Sfarofia!!!!

Besteak: Topa!!!!

Irina: Arraiopolarra!!!!!! Egia da, desagerrtu dirra!!

Sasha: Irina, edo agian vodka gehiegi edan dugu jada!

Irina: Hip!!! Sasha, goazen etxerra. Hip!!!! Mexi-kooooo, mexiiiiikooooo...

Alejandra: Carlos Alfredo no aguantaba las ganas de hacer pipí, jajajaja (Carlos Alfredok ezin zion txizagurari eutsi, kar-kar-kar-kar).

Guadalupe: Andeleeee, ¡qué bonito nos ha salido, Alejandra! (Zein ondo egin dugun, Alejandra!).

Alejandra: Sí, Guadalupe, somos una bailarinas fantásticas (Bai, Guadalupe, dantzari trebeak gara).

ZZ: Oso ondo, mariatxiok, izugarria izan da! (txaloak).

Guadalupe: Txingole, euskaraz hitz egiten dute, Carlos Alfredok bezala.

Matxalen: Ba, azkenean, egia da euskaldunak nahi dugun tokian jaio gaitzkeela.

Carlos Alfredo: Zein txebere, nire aitite ere eukal... eukal...

Guadalupe: Eukaliptus!

Alejandra: Ez... eukal... duna!

Carlos Alfredo: Horixe!!!!, Eukalduna da, Bilbokoa.

Ixone: Noski, Bilbo, munduko hiriburua.

Guadalupe: Hau ospatu egin behar dugu!

Matxalen: Ez, eskerrik asko, vodka gogorra izan da, baina tekila edanez gero, agian ez gara etxera itzuliko.

Alejandra: Ez, lasai, guey, guk dantza egiten ospatuko dugu, baietz, Carlos Alfredo?
Kepa: Baina guk ez dakigu dantza egiten.
Carlos Alfredo: Badakit, euskaldunon berezitasuna da hori.
Guadalupe: Lasai egon, gurekin ikasiko duzue.
Alejandra: Oso erraza da. Begira: bat, bi, hiru, bat, bi, hiru.
Carlos Alfredo: Kar-kar-kar-kar, euskaldun peto-petoak zarete, bai. Ez dakizue aldaka mugitzen.
ZZ: Aldaka? Zer da hori?
Guadalupe: Gerria, mutiko!!!!
ZZ: Hori Karibeko asmakizun bat da. Gure herrian ere zenbait asmakizun daude, adibidez: hauxe.
Alejandra: Utzi traste hori eta hasi dantzan.
Carlos Alfredo: Bai. Alejandra, Guadalupe, atera tronpetak eta arri ba-arriba!!!!!! (Dantza egiten dute eta nekatuta ihes egiten dute).
ZZ: Begira, orain Pekinen gaude!
May-ling: Ooooooooo! Sun-li, eukela!!!!!
Sun-li: Ooooo May-ling, ze jende alaloo!!!!!!
ZZ: Hauek normala da euskara jakitea, mundu osoan zehar daude eta hizkuntza guztiak eza-gutuko dituzte.
May-ling: Alaloak, bai, oso alaloak!!!!!!
Sun-li: Algazkiak egingo litugu.
Matxalen: Aizue, gu ez gara tximinoak!!!!!!
May-ling: Holi da... tximinoak, patata bat nahi?
Ixone: Mmmm, bai, oraindik gose naiz.
Sun-li: May-ling, egilazu algazki bat eukal-tximino hauekin.
May-ling: Nik ele algazki bat nahi dut, Sun-li.
Sun-li: Bai, jali. Bale, egin.
May-ling: Zein politak dilen eukaldunak!
Sun-li: Bai, eta oso jatolak.
Laia: Eta zuek, oso astunak.
May-ling: Oooooo, astunak???? Holi ez da esan behal.

Sun-li: Tximino lelo.
ZZ: Haserretu dituzu! Azkar, edan eta goazen.
May-ling: Nola joan nahi duzue?
Sun-li: Polizia, polizia!!!!!! Tximino hauek kaiolatik alde egin dute.
May-ling: Sun-li, desageltu dila.
Sun-li: Ooooooooo...
May-ling: Ba egilazu beste algazki bat kapsulalekin.
Sun-li: May-ling, nik ele algazki bat nahi dut.
ZZ: Guau!!!! Orain Brasilen gaude!!!!!! Rio de Janeiroko Inauterietan.
Fabio: Eu estou sozinho (Eu isto sosoño) (Bakarrik nago).
Matxalen: Gizajoa!!! Bakarrik dago...
Fabio: Eu nao tenho amigos (Eu nou tengo amikos) (Ez daukat lagunik).
Ixone: Ba sentitzen dut, baina nire katua gaixorik dago eta sendatzera eraman behar dut.
Matxalen: Lasai egon, tipo honekin Inauteriak ikustera joan gaitzke eta gero eramango duzu katua.
Fabio: Benetan???? Venha comigo (Feña comigo) (Etorri nirekin).
ZZ: Oo, ooo, arazo bat dago.
Matxalen: Zer gertatzen da?
ZZ: Bateria bukatu da!!!!!!
Ixone: Zer?!!!
ZZ: Bai, ezin dugu etxera itzuli.
Kepa: Ba hegazkinez itzuli beharko dugu.
ZZ: Ez dugu dirurik ekarri, eta hegaldia oso garestiak dira.
Fabio: Tranki lagun, Voce vem comigo para o Carnaval (Foce fem comigo parao Carnaval) (Zatozte nirekin Inauterira), eta nik ordainduko dut hegazkina.
Matxalen: Primeran!!!!!!!
Ixone: Eta nire katua?

Fabio: Zure katua hilda egongo da jada.
Laia: Azkar ikasi du euskara!!!!!! Kar-kar-kar-kar!
Fabio: Goazen, amigo, goazen dantza egitera!!!!!! Ni
Fabio naiz, eta zuek???
ZZ: Mundiala, nire asmakizuna!!!, tupustean
Brasilen, hondartzan eta jaian!!!! Ni hemen
geldituko naiz, mutil politez inguratuta!!!!!!

Musika.

